

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

697

6/2001 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 35/98 Foru Araua, abenduaren 16koa, garatzen da, Zerga horren aitortpena egiteko betebeharrari dagokionean.

Abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, aitortpena egiteko betebeharrari eskaintzen dio 95. artikulua. Aipatutako 95. artikulua horren arabera, zergapekoek ez dute aitortpena egiteko betebeharririk ondorengo iturrietatik baino ez datozen errentak eskuratzen badituzte:

a) Lan etekinak, banakako tributazioan urteko 3.000.000 pezeta (18.030,36 euro) gordineko mugaz. Baterako aitortpenean, horrelako etekinak eskuratzen dituzten zergadun bakoitzarengan eragina izango du muga horrek.

b) Kapital eta ondare irabaziak, batera urteko 250.000 pezeta (1.502,53 euro) gordineko muga gainditzen ez badute.

Aurreko arau orokorra ezarrita, aipatutako 95. artikulua xedatzen du aurreko a) letran adierazitakoa albo batera utzita, Zerga honen aitortpena aurkeztu behar dutela ondorengoek: indarrean legokeen ekitaldi edo luzapenean zehar ordaintzaile bat baino gehiagorengandik lan-etekinak jasotzen dituztenek edo lan- edo administrazio-kontratu batetik gora sinatu edo indarrean zeukatena luzatu dutenek. Era berean, zerga honen aitortpena aurkeztu behar dute ezkontidearengandik konpentsazio-pentsioak edo Foru Arauaren 8. artikulua b) letran aurreikusi gabe dauden urteko mantenu-pentsioak jasotzen dituztenek bai eta erregelamendu bidez ezartzen diren beste egoera batzuetan daudenean ere.

Abenduaren 21eko 158/1999 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egiteko betebeharraren erregelamendu bidezko garapena arautu zuen. Aitortpena egiteko betebeharrari buruz Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 35/1998 Foru Arauak, abenduaren 16koa, hasiera batean ezarri zituen mugak hartu zituen kontuan Erregelamendu bidezko garapen horrek. Hala ere, Zerga Neurri buruzko 1/2000 Foru Arauak, otsailaren 7koa, ezarritakoaren ondorioz, aldatu egin ziren eta lehenengo lerroaldian jaso dira muga horiek.

Horrela bada, Foru Dekretu honek ondorengoa du helburu: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Arauaren idazketa berri- ra egokitzea zerga horren aitortpena egiteko betebeharraren erregelamendu bidezko garapena.

Zerga Arauen Zerbitzuak eta Kontsulta Batzordeak honi guztia- ri buruz luzatutako txostenak ikusirik.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu sailaren foru diputatu titula- rren proposamenez eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egin- dako bilkuran hala erabaki ondoren,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- Aitortpena egiteko betebeharra.

1. Zergadunek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu eta sinatzeko betebeharra dute Zerga hau arau- zen duen Foru Arauaren 95. artikuluan eta Foru Dekretu honetan ezartzen den legez.

2. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak one- tsiko ditu aitortpen ereduak eta, era berean, aitortpen eredu- en modu erraztu edo berezien erabilpena. Halaber, aurkezteko era, toki eta epeak ezarriko ditu, bai eta, telematika bidez aitortpenak aurkeztuz gero zein egoera eta baldintzetan aurkeztuko diren ere.

Zergadunek eragiten dizkieten datu guztiak beteko dituzte aitort- penetan eta ezarritako edo ezartzen diren agiri eta egiaztagiriekin batera aurkeztu.

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

697

DECRETO FORAL 6/2001, del Consejo de Diputados de 30 de enero, que desarrolla reglamentariamente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en relación con la obligación de presentar declaración por dicho Impuesto.

La Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, reguladora del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, dedica su artículo 95 a la obligación de declarar. En este artículo 95 se establece que no estarán obligados a declarar los contribuyentes que obtengan rentas procedentes exclusivamente de las siguientes fuentes:

a) Rendimientos del trabajo, con el límite de 3.000.000 de pesetas (18.030,36 euros) brutas anuales en tributación individual. Este límite operará, en tributación conjunta, respecto de cada uno de los contribuyentes que obtengan este tipo de rendimientos.

b) Rendimientos del capital y ganancias patrimoniales, que no superen conjuntamente las 250.000 pesetas (1.502,53 euros) brutas anuales.

Establecida la regla general anterior, el citado artículo 95 indica que con independencia de lo señalado en la letra a) anterior, estarán obligados a presentar declaración por este Impuesto quienes perciban rendimientos del trabajo procedentes de más de un pagador o hubiesen suscrito más de un contrato de trabajo, laboral o administrativo, en el ejercicio o prorrogado el que estuviese vigente. Asimismo deberán presentar declaración por este Impuesto quienes perciban pensiones compensatorias recibidas del cónyuge o anualidades por alimentos diferentes de las previstas en la letra b) del artículo 8 de la Norma Foral, así como quienes se encuentren en otros supuestos que se establezcan reglamentariamente.

El Decreto Foral 158/1999, de 21 de diciembre, reguló el desarrollo reglamentario de la obligación de presentar declaración por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Este desarrollo reglamentario tuvo en cuenta los límites determinantes de la obligación de declarar que inicialmente se establecieron en la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Sin embargo estos límites fueron modificados en virtud de la Norma Foral 1/2000, de 7 de febrero, de Medidas Fiscales y son los que se han hecho constar en el párrafo primero anterior.

Pues bien, el presente Decreto Foral tiene como objeto adecuar el desarrollo reglamentario de la obligación de presentar declaración por dicho tributo, a la nueva redacción de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

A propuesta del Diputado Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada el día de hoy,

DISPONGO:

Artículo 1.- Obligación de declarar

1. Los contribuyentes estarán obligados a presentar y suscribir declaración por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en los términos previstos en el artículo 95 de la Norma Foral reguladora de este Impuesto y en este Decreto Foral.

2. Los modelos de declaración, así como la utilización de modalidades simplificadas o especiales de declaración, se aprobarán por el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, que establecerá la forma, lugares y plazos de su presentación, así como los supuestos y condiciones de presentación de las declaraciones por medios telemáticos.

Los contribuyentes deberán cumplimentar la totalidad de los datos que les afecten contenidos en las declaraciones y presentarlas acompañadas de los documentos y justificantes establecidos o que se establezcan.

3. Baterako tributazioa egitea aukeratuz gero, familia-unitateko kide adindu bakoitzak aitortpena sinatu eta aurkeztu beharko du. Familiako seme-alaben izenean jardungo dute, Zergei buruzko Foru Arauak 44. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenak Foru Aldundiak ezarritako baliabide edo bide informatikoak edo bestelakoak erabiliz aurkez daitezke.

2. artikulua.- Aitortpena egiteko betebeharrak salbuestea.

1. Zergadunek ez dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egiteko betebeharririk izango ondorengo iturrietatik baino ez datozen errentak eskuratzen badituzte:

a) Lan-etekinak, banakako tributazioan urteko 3.000.000 pezeta (18.030,36 euro) gordineko mugaz. Baterako aitortpenean, horrelako etekinak eskuratzen dituzten zergadun bakoitzarengan izango du eragina muga honek.

b) Higiezin eta higikorren kapital etekinek eta ondare irabaziek batera urteko 250.000 pezeta (1.502,53 euro) gordineko muga ez badute gainditzen.

Hala ere, aitortpena aurkeztea beharrezkoa izango da konturako ordainketak itzultzea lortzeko.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa albo batera utziz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu behar dute zergadunek, urteko 3.000.000 pezeta (18.030,36 euro) gordin edo gutxiagoko lan etekinak banaka jaso eta Zergaren Foru Arauan jasotako egoeretan edo hurrengoetan badaude:

a) Zerga-aldian zehar ordaintzaile bat baino gehiagorengandik edota ordaintzaile berarengandik lan-etekinak jasotzen badituzte, baina, kontzeptu bera edo desberdinegatiko etekinak ez ordaintze-arren, dagokien atxikipena egiteko pilatzen ez direnean. Halaber, zerga-aldian zehar lan kontratu bat, administraziokoa edo beste mota batekoa, edo lan harreman bat edo gehiago sinatu denean.

b) Kontratuan edo harremanean hasiera batean aurreikusitako lanaldia bukatu arren enplegatzaile berari zerbitzuak eskaintzen jarraitu, edo zerga-aldian zehar berriro zerbitzuak eskaintzen hasten denean. Horietaz gain, administrazioko edo bestelako lan kontratu edo harremana zerga-aldian zehar luzatu denean.

c) Zergadunek foru erakundeek onartu gabeko araudi baten bidez kalkulaturiko lan atxikipen edo konturako sarrerak izan badituzte edo Euskal Autonomia Erkidegoko aldundiren batean ingresatuak izan ez badira.

d) Zergadunek gizalan edo eguneko soldata bidezko ordainsariak jasotzen badituzte.

e) Emaitzen edo antzeko beste parametro batzuen arabera aldizkari diren ordainsariak jasotzen dituzten zergadunak, beti ere, ordainsari horiek handiagoak badira atxikipen- edo sarrera-portzentajea kalkulatzeko Zergaren Foru Arauak 100. artikuluan kontuan izanda-koak baino.

f) Zerga salbuespen, hobari, murrizketa, kenkari edo edozein zerga onuraz disfrutatze eskubidea izateko ezarri diren baldintza, epe edo egoerak betetzen ez dituzten zergadunak eta, horretarako Zerga Administrazioari baldintza edo egoera horien berri eman behar zaionean edo erregularizazio edo sarrera egin.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru Dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera indargabeturik geratzen dira bertan xedatutakoaren aurka dauden xedapenak, maila berekoak edo txikiagokoak. Abenduaren 21eko 158/1999 Foru Dekretuaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egiteko betebeharraren erregelamendu bidezko garapena arautzen duen 158/1999 Foru Dekretuaren 1. eta 2. artikulua zahazki indargabeturik geratzen dira

AZKEN XEDAPENA

Oraingo Foru Dekretu hau indarrean jarriko da Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko urtarrilaren 30a.- Diputatu Nagusia, RAMON RABANERA RIVACOBAN. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularra, JUAN ANTONIO PEREZ DE ARRILUCEA.

3. En caso de optar por la tributación conjunta, la declaración será suscrita y presentada por los miembros de la unidad familiar mayores de edad, que actuarán en representación de los hijos integrados en ella, en los términos del artículo 44 de la Norma Foral General Tributaria.

4. Las declaraciones por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se podrán efectuar utilizando o aprovechando medios, procesos informáticos o de otro tipo o servicios establecidos por la Diputación Foral.

Artículo 2.- Exclusión de la obligación de declarar

1. No estarán obligados a presentar declaración por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas los contribuyentes que obtengan rentas procedentes exclusivamente de las siguientes fuentes:

a) Rendimientos del trabajo, con el límite de 3.000.000 de pesetas (18.030,36 euros) brutas anuales en tributación individual. Este límite operará, en tributación conjunta, respecto de cada uno de los contribuyentes que obtengan este tipo de rendimientos.

b) Rendimientos del capital inmobiliario y mobiliario y ganancias patrimoniales que no superen, en su conjunto, las 250.000 pesetas (1.502,53 euros) brutas anuales.

No obstante, para obtener la devolución de los pagos a cuenta efectuados será necesaria la presentación de la declaración.

2. Con independencia de lo dispuesto en el apartado anterior, en los supuestos que a continuación se relacionan, estarán obligados a presentar declaración por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas quienes individualmente perciban rendimientos del trabajo en cuantía igual o inferior a 3.000.000 de pesetas (18.030,36 euros) brutas anuales y se encuentren en cualquiera de los supuestos contemplados en la Norma Foral del Impuesto o en alguna de las siguientes situaciones:

a) Contribuyentes que, durante el período impositivo, perciban rendimientos del trabajo procedentes de más de un pagador o bien del mismo pagador pero que por satisfacer rendimientos por conceptos iguales o diferentes, no los acumule a efectos de practicar la retención correspondiente, así como quienes hubiesen suscrito, dentro del período impositivo, más de un contrato de trabajo o relación laboral, administrativa o de otro tipo.

b) Contribuyentes que al concluir el período inicialmente previsto en un contrato o relación, continuasen prestando sus servicios al mismo empleador o volviesen a hacerlo dentro del período impositivo, así como cuando hayan prorrogado su contrato de trabajo o relación laboral, administrativa o de otro tipo.

c) Contribuyentes que hayan soportado retenciones o ingresos a cuenta del trabajo calculados de acuerdo con una normativa diferente a la aprobada por las Instituciones forales o que no hayan sido ingresadas en alguna Diputación Foral del País Vasco.

d) Contribuyentes que perciban sus retribuciones por peonadas o jornales diarios.

e) Contribuyentes que perciban retribuciones variables en función de resultados u otros parámetros análogos, siempre que estas retribuciones superen a las tenidas en cuenta para el cálculo del porcentaje de retención o ingreso a cuenta en los términos del artículo 100 de la Norma Foral del Impuesto.

f) Contribuyentes que incumplan alguna de las condiciones, plazos o circunstancias establecidas para tener derecho a disfrutar de alguna exención, bonificación, reducción, deducción o cualesquiera beneficio fiscal que conlleve o implique la necesidad de comunicar a la Administración Tributaria dicha circunstancia o de efectuar regularización o ingreso.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A partir de la entrada en vigor del presente Decreto Foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el mismo. De forma concreta quedan derogados los artículos 1 y 2 del Decreto Foral 158/1999, de 21 de diciembre, que regula el desarrollo reglamentario de la obligación de presentar declaración por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

Vitoria-Gasteiz, a 30 de enero de 2001.- El Diputado General, RAMON RABANERA RIVACOBAN. El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO PEREZ DE ARRILUCEA.